

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2019/2020 ikasturtea

ETA ZUK, ZER ENTZUTEN DUZU? HEZKIDETZAREN LANKETA MUSIKA HEZKUNTZAN

Egilea: Eider Larrabeiti Gorostidi

Zuzendaria: Cristina Arriaga Sanz

Leioan, 2020ko maiatzaren 27an

AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	3
2. HEZKUNTZAREN XEDEA ETA EGOERA.....	4
2.1. HEZKIDETZA	5
2.2. CURRICULUM EZKUTUA	7
3. MUSIKA HEZKUNTZAREN GARRANTZIA HEZKUNTZAN	10
3.1. KANTUGINTZA.....	11
3.1.1. SEXISMOA ABESTIETAN.....	13
4. HELBURUA	14
5. METODOLOGIA.....	15
5.1. OINARRI METODOLOGIKOA	15
5.2. PARTAIDEAK.....	15
6. LANAREN GARAPENA.....	17
7. ESKU HARTZEAREN EMAITZAK.....	20
8. ONDORIOAK.....	21
9. ETIKA PROFESIONALA ETA DATUEN BABESA	22
10. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIA.....	22

Lan honetan Lehen Hezkuntzako seigarren mailako ikasleekin egindako esku-hartze bat aurkituko duzue. Helburua hezkidetzaren garrantzia azpimarratzea da ikasleek entzuten dituzten zenbait abestiren mezuak identifikatuz eta aztertuz baita hauen aurrean izan beharreko jarrera kritikoa bultzatzea. Esku hartzearen abiapuntua Martxoak 8 izanda, ikasleekin egiteko zenbait jardura diseinatu eta aztertu dira ikuspegi kualitatiboa erabiliz. LOGSE legetik gaur egunera arte legeek duten kontraesanen bat, hezkidetzaren lanketaren beharrezana eta antzerako beste zenbait ondorio ere jasotzen ditu lanak.

Hezkidetzeta, kantua, sexismoa, jarrera kritikoa, Lehen Hezkuntza

Este trabajo recoge una intervención con estudiantes de sexto grado de primaria. El objetivo es subrayar la importancia de la coeducación analizando algunas de las canciones que las y los jóvenes escuchan en su tiempo libre y fomentar una actitud crítica hacia ellas. Para llevarlo a cabo, se han diseñado y se han analizado desde una perspectiva cualitativa una serie de actividades para niñas y niños basadas en el 8 de marzo recogiendo conclusiones como las contradicciones que tiene las leyes educativas a partir de las Ley LOGSE, la necesidad de trabajar la coeducación...

Coeducación, canciones, sexismo, actitud crítica, Educación Primaria

This work includes an intervention with sixth grade students. The aim is to praise the importance of the coeducation by analysing some of the songs that they listen to in their free time and to foster a critical attitude towards them. To carry it out, a series of activities based on march 8 has been designed for the children, from a totally qualitative perspective. The work also includes different conclusions such as the contradictions that educational laws have from the LOGSE Law, the need to work on coeducation ...

Co-education, songs, sexism, critical attitude, Primary School

1. SARRERA

La música es el verdadero lenguaje universal.

Carl Maria von Weber, konpositorea

Badira lau uda begirale moduan lanean daramatzadanak, baina 2019ko udak zeresan handia eman izan dit bai gizabanako moduan bai etorkizuneko hezitzaile moduan. Udalekuetan, musikak berebiziko presentzia izan du egunerokotasunean burutu beharreko jardueretan baita umeen denbora librean ere, uneoro musika jartzeko eskatzen baitzuten.

Aurreko ikasturteko uda pasa irekietan, Lehen Hezkuntzako ikasle guztiak elkarrekin zebiltzan, askotan musikaren inguruan aritzen zirelarik berriketan. Horrelako batean, begirale moduan zaintza egiten nebilela, umeekin bat egin eta beraiekin musikaren inguruan hizketan jarri ginen (zer musika entzuten zuten, beraien abesti gustukoena, zergatik entzuten duten musika hori...). Erantzunek asko harritu eta arduratu ninduten. Gizartean berdintasunaren eta hezkidetzaren alde egin beharrean, txiki-txikitatik mezu guztiz estereotipatuak eta sexistak helarazten zituzten abestiak entzuten dituztela konturatu bainintzen.

Egoera honek, aldaketa baten beharra ikusita, etorkizuneko irakasle moduan hezkidetzaren lanketak duen garrantziaz hausnartzera eraman ninduen eta nahiz eta hezkidetzaren gizarte osoaren oinarria izan, oraindik dugun bide luzeaz konturatu nintzen baita musika hezkuntzaren bidez hezkidetzaren lantzeko bideez ere hausnartzeko aukera izan nuen, praktikan jartzeko gogoia piztaraziz. Beraz, lan honetan, hezkidetzaren bidez nola landu erakutsi nahi dut, hezkidetzaren garrantzia gorai patuz baita musika hezkuntzak bere baitan hartzen duen kantugintzaren etekina ere erakustea dut helburu.

Horretarako, lan honetan, lehenik hezkidetzaren eta musika hezkuntzaren garrantzia aztertuko da hainbat adituren hitzetan oinarrituta eta ondoren, seigarren mailakoekin burututako proposamen bat dago non eurek entzuten dituzten zenbait abestiren azterketan oinarritua den batez ere.

2. HEZKUNTZAREN XEDEA ETA EGOERA

Hezkuntzak, bizikidetasun printzipio demokratikoak errespetatuz eta behin-behineko eskubide eta askatasunak errespetatuz giza nortasunaren aurreramendu osoa du helburu (Espainiako Konstituzioko 27.2 artikulua; Heziberri 2020¹). Gainera, Heziberri 2020 hezkuntza planak jasotzen duen moduan, Jacques Delors buru zuen UNESCOren Nazioarteko Batzordearen txostenak (1996) hezkuntzaren inguruan dioenaren alde egiten du:

Mundu osoan hezkuntzak helburu berbera du: norbanakoen artean gizarte loturak jostea, eta horretan, denek konpartitutako erreferentziak hartzea oinarri. Horretarako erabilitako baliabideak ere aldatu egiten dira, noski, kulturen eta inguruabarren arabera; baina, edonola ere, hezkuntzaren xede nagusia bera da beti: gizakia gizartearen baitan erabat garatzea, alegia. Alde horretatik, kultura eta balioak transmititzeko bidetzat definitzen da, gizarteratze-espazioak eraikitzeke bidetzat, denona izango den proiektu bati ekiteko arragoatzat.(8.or)

Hau da, hezkuntza sistemaren helburu nagusia testuinguru batean oinarritua den, behar sozialetara egokitzen den eta pertsonen integrazio, inteligentzia, askatasun eta kompetentzia sozial eta pertsonala bermatzen dituen hezkuntza ematea da. Esan daiteke, hezkuntza gizabanakoaren jarrera ulertzeko aspektu basikoa dela baita gizatiar garapena eta elkarbizitzari mesedea egiteko beharrezko orientazioa (Cabedo eta Díaz, 2015). Gainera, gure hezkuntza komunitatea baloreetan oinarritua den ikaskuntza ahalbidetzen duen eta guztion integrazioaren alde egiten duen lekua izatea lortu nahi da (Cabedo eta Díaz, 2015). Esanikoa kontuan izanda, hezkuntza balioak transmititzeko bide modura hartzearen alde eginez, hezkuntza legetan zentratuz, hauek ere honen alde egiten dute hezkidetzat landu beharreko lerro moduan ikusiz. LOGSE legearen 1/1990 dekretuari (Ley Orgánica General del Sistema Educativo) erreferentzia eginez, honen sorrerak aurrera pauso handia dakar; izan ere, lehen aldiz, hezkuntza legislazioak sexuen arteko giza aukera berdintasuna birplanteatzeko beharrezana jasotzen du (López, 2005); LOE 2/2006 dekretuak (Ley Orgánica de Educación) eta LOMCE 8/2013 dekretuak (Ley Orgánica para la Mejora de la Calidad de la Educación) hainbat balore sozial

¹ Heziberri 2020 236/2015 Dekretua. EHAA, abenduaren 22koa, Oinarritzko Hezkuntzaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena. <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2016/01/1600141e.pdf>

transmititzeko beharrezana ikusten zuten, egungo Heziberri 2020 planak aurreko hiru legeen alde egiten duelarik. Tolerantzia, askatasuna, solidaritatea, problemen ebazpena, indarkeria ezberdinen gestioa edota giza eskubideen defentsa (Cabedo eta Díaz, 2015). Beraz, hezkuntza giza garapena orientatzeko eta elkarbizitza sozialari mesede egiteko beharrezko instrumentutzat hartzen dela kontuan izanda (Cabedo eta Díaz, 2015) hezkuntzan hezkidetzaren garrantzia ondorioztatu daiteke eta hezkidetzaren eskubide bat eta hezkuntzaren helburu bat izan beharko lukelarik (Cabeza, 2010; Reizabal, 2015; Subirats eta Brullet, 1991).

2.1. HEZKIDETZA

Egungo gizarteak ez ditu emakumeak eta gizonak modu parekide batean tratatzen (Ugarte, Otaduy eta Irigoyen, 2012). Gizarte androzentriko bat dugu oinarri non gizona erdigunetzat jartzen dugun eta emakumea maskulinitatearen menpeko bilakatuz. Gizona subjektu aktiboa eta emakumea objektu pasiboa plazaratuz (Alvarez, 2010). Generoa, berriz, ondorengo hau izango litzateke Reizabalen eskutik (2015):

Genero diskriminazioaren sinonimotzat hartu ohi da sexismoa, eta pertsonen sexuaren arabera diskriminatzeko edo abantailak esleitzeko erabiltzen diren ohiturei dagokie. Gizartea patriarkala izanik, emakumeak diskriminatu egiten dira, eta gizonen, berriz, abantailak esleitzen zaizkie. Horiek horrela, sexismoaren ondorioz, sexua oinarri hartuta, gizon-emakumeei eskaintzen zaizkien aukeretan, haienganako tratuan, dauzkaten baldintzetan, atxikitzen zaizkien arau moraletan, ematen zaizkien sari edo zigorretan eta beste hainbat esparrutan emakume eta gizonen arteko ezberdintasunak eta hierarkizazioa sortzen dira (Reizabal, 2015).

Gainera, zoritarrez, generoaren arabera ere izendatuak gara. *Generoa* kontzeptuak, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun sozialak adierazten ditu desberdintasun biologikoak at utziz (Europako Batzordea, 2016). Generoak sexuan oinarrituta gizarteak esleitzen dituen rol jakinei eta beraz, esleipen horien ondorioz eduki behar diren jarrera edo jokaerei egiten die erreferentzia (Coll-Planas, 2013, Gorrotxategi eta Álvarez-ek aipatua, 2017). Eraikuntza soziala da generoa eta generoa botere soziala izanik pertsonak hierarkia sozialean kokatzeko tresna da (Butler, 2013, Gorrotxategi eta Álvarez-ek aipatua, 2017).

Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 18ko 4/2005 Legeak genero ikuspegia honela definitu zuen: «emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrezko ezberdinak

modu sistematikoan kontsideratzea, eta, horretarako, ezberdintasunak ezabatzeke eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketara zehatzak txertatzea politika eta ekintza guztietan, maila guztietan, eta horien plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan» (Eusko Jaurlaritza, 2016, 96.or).

Jakinaren gainean egonda, neskek eta mutilek sexuaren arabera ere jaso jarraia eta gaitasun batzuk lantzen dituztela kontuan izanda, eskolak egoera honen aurrean bere neurriak hartzen ez baditu, eskema sozialak erreproduzituko dira (Azpiroz, 2005) hezkuntzaren helburua balore sozialak transmititzea baita, gizarte sexista honek dituen ezberdintasunak baztertuz; hots, berdintasunaren alde egitea da bidea.

Hezkidetzak zer den ulertzeko, Euskal Herriko Bilgune Feministak argitaratutako Hezkidetzak Gida-n (2018) ondorengo hau irakurri dezakegu:

Bere banakotasun, berezitasunaren arabera, izaera ezberdinak onartuz, generotik at egiten den pertsonen hezkuntza litzateke. Irizpide sexistek barnebiltzen dituzten, gizon eta emakumei egokitutako rol, balore, portaerak e.a. transmititu gabe hezteak da. Pertsona autonomoak izateko, gure bizitza proiektuen jabe izateko, hurbileko inguruarekin elkarbizitzan eta behar ditugun gaitasunak garatzea ahalbidetzeko helburuekin. Kontzientea den prozesu hezitzailea da eta neska eta mutilen arteko aukera berdintasunean oinarritzen da. Pertsonen garapen integrala lortu nahi du.(96.or).

Beraz, aipamen honen bidez, hezkidetzak gizaki oro bera den bezala hezteko aldarrikatzen du, parekidetasunean eta gainerakoak errespetatuz, eta berezitasunak aberastasun bihurtuz. Horren harira, eskola hezkidetzagile batek Molines-en (2015) aburuz, generoaren ikaskuntzak eta sexismo sozialak duten eraginak sortutako ezberdintasunak deuseztatzeke ere balio du. Azken finean, hezkidetzak pertsona guztiak parekidetasunean eta diskriminazio ezan hezteko helburua duen eskuhartze hezitzailea da, sexu/genero sistemaren arabera menperatze harremanik erabili gabe, eta diferentziatik berdintasunean heziko da (Jorajuria, 2016).

Hezkidetzaren aldeko hezkuntzari dagokionez, Guía de Coeducación del Instituto de la Mujer-ek (2008) eta Cabeza-k (2010) aipatu moduan, sexuen arabera estereotipoak ezabatzea da, nesken eta mutilen arteko ezberdintasun sozialak eta hierarkia kulturalak gaindituz. Gainera, generoen arteko mailakatzea ezabatzen du eta ezberdintasunak baloratu eta errespetatzeko apustua egiten du.

Ildo beretik jarraituz, Hezkuntza hezkidetzaila lortzeko, hezkuntza eredu honela bideratu beharko litzateke (Tomé eta Subirats, 2007, Jorajuria-k aipatua, 2016):

1. Neskak baloratutako hezkuntza ereduan sartzea baita eredu kulturalen ere.
2. Hezkuntza-eredua eta eredu kulturala aldatzea, androzentrismoarekin amaituz eta emakumeen kulturako elementuak sartuz.
3. Hezkuntza munduan neskak protagonistagoak izatea, emakumezkoek haien kooperazio jarreraren bidez protagonismoa edukitzea lortuz.
4. Mutilak kultura berri honetan sartzea, historian zehar haientzat ezinezkoak ziren jarrera eta portaerak izateko aukera irekiz.

Guzti hau esanda, García (2012) dioenari men eginez, musikak elkarrizketa, elkarbizitza eta elkarlana sustatzen dituen, hezkidetzarekin elkarlotua dela begi bistakoa da.

Hau guztia esanda, hezkuntzaren helburu orokorra irakasten denaren hezkidetzazko izaera bermatzea izango dela nabari da, ikasleei formazioa integrala eskainiz eta balioen aldaketa sustatzeko ezinbesteko ikusirik (Ugarte, Otaduy eta Irigoyen, 2012). Hala ere, eskolan, hezkuntzan curriculum ofiziala, gure kasuan Heziberri 2020, egoteaz gain, curriculum ezkutua ere kontuan izan behar dugu eta, hurrengo atalean azaldua izango den bezala Cabeza-ren (2010) hitzei jarraiki esan dezakegu ezkutuko curriculumak jarrera eta estereotipo sexistak transmititzen jarraitzen dituela hauek hezkuntza errealitatean presente daudelarik.

2.2. CURRICULUM EZKUTUA

Orain arte curriculumak zehazten dituen printzipio orokorrak aipatu izan ditugun arren, benetako curriculumak ikasgelan sortzen diren dinamiketarik eta irakaslea horretara egokitzeko era oinarri hartuta eraikitzen dela esan beharra dago. Curriculum ez-esplizitu horri curriculum ezkutua esaten zaio, “todos aquellos conocimientos, destrezas, actitudes y valores que se adquieren mediante la participación en procesos de enseñanza y aprendizaje y, en general, en todas las interacciones que se suceden día a día en las aulas y centros de enseñanza” (Torres, 1991: 198). Zoritxarrez, curriculum ezkutua berran hezkidetzaren inguruko aspektu ezberdinak kokatu ahal ditugu.

Hau esanda, Subirats eta Brullet-ek (1991) diotenari erreferentzia eginez, ustetan gauditua dugun heziketa sexista batean murgilduak jarraitzen dugula aipatu beharra

dago, gizarteak maskulinoztat dituen balioak gizarteak femeninoztat dituen balioen gainetik hierarkizatzen baitira, eta hauek eskolan, modu inplizituan ematen dira (Eusko Jaurlaritza, 2016). Arestian aipatu izan den moduan, LOGSE legearekin batera, 90eko hamarkadan hezkidetzaren zehar lerro bihurtu zen eta, berez, lorpen handia zena (ikasgai guztiak genero ikuspegitik birplanteatzea eskatzen baitzuen), praktikan "inoren ardura ez izatea" bihurtu da (Azpiroz, 2005). Denek onartzen duten kontsigna bat gehiago da hezkidetzaren baina praktikan inork heltzen ez diona (Azpiroz, 2005).

Eskolan ezkutuko curriculumak eragina duen adibide argiak ondorengoak izan daitezke: alde batetik, liburuen analisian dugu aipatzeko. Adibidez, nahiz eta denborarekin aldatzen joan izan garen, oraindik emakumeak sukaldetan agertzen dira, gizonak irakurtzen edota gainerako gauzak egiten agertzen direlarik (Subirats eta Brullet, 1991). Bestalde, gizarte honetako kulturaren murgildurik, hezkuntzan matematika, historia eta holako ikasgaietara berebiziko garrantzia ematen zaie non hierarkia androzentrikoaren aurrean kokatuta hezkuntzan gizonentzakoak eginiko guztia plazaratzen den eta emakumea zaintzara, sukaldara eta antzerako arloetara bideratua dela zeharka erakutsiz (Subirats eta Brullet, 1991). Beraz, ikusi daiteke, berdintasun formala ez datorrela bat errealitateko berdintasunarekin, normaltzat hartzen ditugun diskriminazioa jarrerak askotarikoak baitira neska zein emakumeak gutxietsiz (Subirats eta Brullet, 1991).

Gainera, Subirats eta Brullet-en (1991) hitzekin jarraituz, Molines-ek (2015) aurrekoarekin bat eginez beste adibide bat ematen du oraingoan liburua at utziz eta norberaren izaeran zentratuz. Gaztetatik mutikoei jarrera oldarkorrek eta ez oso maitekorrek izatea onartzen zaie (Molines, 2015), TED YouTube kanalean *Tony Porter: un llamado a los hombre* (2010) bideoa adibide argia izanez aurreko ideia indartzeko hemen mutilei negarrik ezin dutela egin erakustera ohituak garela plazaratzen baita. Neskei aldiz, aurkako jarrerak onartzen zaizkie, sexuaren arabera igurikapen ezberdinak izanez eta bere generoaren arabera erantzun ezberdinak eskatuz (Molines, 2015). Beraz, genero sesgoak emakumearen presentzia liburuetan ez aipatzeaz gain, bigarren mailako protagonista moduan plazaratu izan ditu beti, erbesteratua izango balitz modura, berorri gizaki inperfektu, zital, ahul, pasibo eta abarrak diren izenordainak atxikitzen zaizkiolarik (Duby eta Perrot, 2000, Loizaga-k aipatua, 2005).

Hau ikusita, Marina Subirats eta Cristina Brullet-ek (1991) *La Cooperación* lanean aipatzen duten legez, hezkuntza sexistaren parte gara baita gure gizarte androzentrikoak dituen ondorioen eroaleak ere. Gainera, Beauvoir-ek “*El Segundo Sexo*” liburuan argitaraturiko pasarte aipatu beharra dago:

La humanidad es masculina y el hombre define a la mujer no en sí, sino en relación con él; la mujer no tiene consideración de ser autónomo [...] aparece como el negativo, de modo que toda determinación se le imputa como una limitación, sin reciprocidad. Él es Sujeto, es el Absoluto: ella es la Alteridad.

Musika Hezkuntzan barneratuz gero, aipatzekoa da, musikaren alderdi historikoari erreparatuz, musikaren parte-hartzaileen eginbeharrak zehazteko erabilitako faktoreetako bat generoaren izan dela (Green, 2001, Loizaga-k aipatua, 2005). Musika hezkuntzan ere emakumearen tratamendua kontserbatzaile gisa azaldu eta emakumeen papera minimizatu izan da. Musikaren historian eremuak oso zehatzak izan dira eta musika jardueratan eremu batzuetara iristeko zailtasunak izan dituzte alderdi batzuetan (konposizioa, adibidez) maskulinizatzen edo feminizatzen dituzten aurreiritzi sendoak egon direlako (Hernández eta Maia, 2013). Ramos-ek (2010) gogoratzen digunez, Ilustrazio garaiak jada emakumearen ekarpenak baztertzen zituen gizonezkoa gizaki neutro, unibertsal eta eredugarri giza jarriz. Beraz, ikusi genezake, generoaren desberdintasunean erori izan dira beti, eta ondorioz, emakumea auto-errepresentaziorako biderik errazena gutxietsia dela barneratzearekin elkarlotua dago (Rieger, 1986; Ramos-ek aipatua, 2010), emakume musikagileen izenean ondorengo hitzak entzunak direlarik:

Antes creía tener talento creativo, pero he abandonado esa idea; una mujer no debe desear componer —no hubo nunca ninguna capaz de hacerlo. ¿Y quiero ser yo la única? Creerlo sería arrogante. Eso fue algo que sólo mi padre intentó años atrás. Pero pronto dejé de creer en ello (Wieck-Schumann, 351-408.orr, Ramos-ek aipatua, 2010)

Ikusi dugunez, musikaren historian, besteen moduan, sesgo hauen eramailea izan da eta egun ere bada, musika hezkuntzan isla daitekeelarik. Adibide argia da gaur egungo musika munduan zentratuz, Europa, Australia eta Iparramerikako musika orkestra eta festibalen finantzazio programaren %0,05 baino gutxiago emakumeak sorturiko lanei zuzendua da (Chiti, 2003, Ramos-ek aipatua, 2010). Fenomeno hau beste musika estilo batzuetan ere islatzen da; rock, heavy metal edo rap bezalako taldeetan, emakumeen presentzia “es puramente anecdótica. Más aun, en los pocos casos en los que encontramos mujeres tocando un instrumento o cantando, éstas son lanzadas no desde su valor como

músicas, sino desde su cosificación y su contribución al imaginario sexista.” (Figueras, 2015, 4 orr.)

Ikusi dugunez, oraindik bide luzea dugu aurretik gauzak aldatzeko. Hau guztia kontuan izanda, hezkidetzaren alde egitearekin batera, ezinbestekoa da hezkuntza erreflexiboaren alde egitea, irakaskuntzako partaideek transmititu nahi dutena eta transmititu nahi ez dutena argi izateko. Orain, Musika Hezkuntzak eskaintzen dizkigun nondik norakoak aztertuko ditugu, hezkidetzarekin duen harremana plazaratuz.

3. MUSIKA HEZKUNTZAREN GARRANTZIA HEZKUNTZAN

Musika Hezkuntza adierazpen eta komunikazio bide bat da denbora, soinu, erritmo eta mugimendua elkartzan dituen. Ikasleen hazkuntza integralean laguntzen du, gizabanakoaren garapen indibidual eta pertsonalean eragin zuzena duelarik. Gainera, esan beharra dago, Heziberri 2020-ren xedeak dioenarekin bat eginez, adituek musika hezkuntzak garapen sozio-afektiboan eta psikomotorrean ere laguntzen duela adierazten dute (Conejo, 2012, Cabedo eta Díaz-ek aipatua, 2015). Are gehiago, artea, eta honen barnean musika, auto-hausnarketa ahalbidetzen duten ezinbesteko erremintak dira baita entzuketa aktiboa, elkarrizketa, elkarbizitza eta elkarlana sustatzen dute, garapen pertsonalean ere eragina izanik, garapen emozionala eta kognitiboa barne hartzen dutelarik (García, 2012; De Alba, Arriaga, eta Camara, 2019). Beraz, musika hezkuntza instrumentua egoki eta erabilgarria izan daiteke hezkidetzaren lantzeko hainbat balore sozial transmititzeko bidea baita.

Orain artekoa kontuan izanda, hezkidetzaren helburuak besteak beste eredu maskulinoa unibertsaltzat ez hartzea; estereotipo sexistak zuzentzea; hezkidetzaren eta sexismoa hezkuntzan; gizarteko norabide sexistak ezabatzea, curriculum orekatua proposatuz; genero independentziarekin gaitasun indibidualak garatzea izanik (Itoiz, 2013), hezkidetzaren lanketa irudien bidez (generoen arabera kokapen estereotipatuak ekidinez eta guztiak leku guztietan agertuz adibidez), testuen bidez (gizateriaren garapenean emakumeei dagozkien ekarpenak azaldu adibidez)... egin daitekeela badakigu (Zaitegi eta Zabala, 1993). Baina honi musika hezkuntza ere gehitu dakiokegu. Musika hezkuntzaren balio pedagogikoa gizateria berraurkitzean datza, hezkidetzaren alde gizarteri etiko bat lortzea du helburu eskola inguratzen duten gizarteriaren gaiekin

harremanak ezartzen dituen ikuspegia landuz (van der Schyff, 2015, Fernández eta Jorquera-k aipatua, 2017).

Hau esanda, aldarrikatu nahi dugu LOGSE eta LOE legeekin musika irakasgaiak lortu zuen tratamendua galdu zela eta LOMCE legeak musika hezkuntza, hezkuntza artistikoan sartuta, ikasgai espezifiko moduan deitua diren horietako bat modura izendatu zuela kontuan izanda, begi-bistakoa da aldaketa behar dela. Honek esan nahi duena da Autonomia Erkidego edo ikastetxe bakoitzak aukeratu ahal izango duela hezkuntza-eskaintzan zer eta nola sartzten duen eta ez sartzea gertatu ahal dela (Cabedo eta Díaz, 2015).

Hau guztia esanda, ondorioa honetara hel gaitzke. Guztiok oinarrian argi daukagu hezkuntzak gizabanako guztien garapenean arreta jarri behar duela komunitateko kide gisa pertsona hobe izatearen mesedetan. Premisa honen barnean, musika-lengoaia eta bere ikaskuntza, hezkuntza-legeak aipatzen dituen balioak ikasteko ibilgailu egokia izan daitezke, nahiz eta horiek ez egon islatuta arte hezkuntzaren ikaskuntzaren estandarretan (Cabedo eta Díaz, 2015).

Bukatzeko, musika hezkuntzaren barruan kantugintza dagoela jakinik, hau lantzeko asmotan, ondorengo helburuak barne hartzen ditu (Heziberri 2020, 236/2015 Dekretuaren II. Eranskinean, 251.or):

7. Soinu eta irudietatik abiatuta sortutako ekoizpenek ingurune fisiko eta sozialarekin zer-nolako loturak dituzten azaltzea eta kritikoki aztertzea, ekoizpenok gizon-emakumeon bizitzan zer-nolako eragina duten ulertzeko.

1. Arteak eta kultura bisual eta musikalak norberaren ideiak, sentimenduak eta bizipenak komunikatzeko eta espresatzeko ematen duten aukera ugarietz ohartzeko, eta horretan, komunikazio-gaitasunean, pentsamendu kritikoan eta auto-konfiantzan aurrera egitea.

3.1. KANTUGINTZA

Abestea hainbat etekin ematen dituen jarduera da. Alde batetik, abestea jarduera soziala da, eta bere burua berresteko eta bere buruarekin berriro elkartzeko aukera ematen dio haurrari besteak entzutean eta besteei bere burua erakustean. Beraz, trebetasunak lortzeko bide bat da abestea (Siebenaer,1999, Camara-k aipatua, 2005).

Bestetik, nahiz eta jakin haurrak hazten doazen heinean musikak eta kantugintzak haien zat duen esanahia eskolaz kanpoko testuinguruetan kokatzen dela (Camara, 2003) eta eskolan entzuten den musikaren eta eskolaz kanpo hurrek entzuten duten musikaren artean dagoen dikotomiaz kontuan izanda, musika geletan eta hezkuntzan abestea behar-beharrezko ekintza dela ziurtzat jotzen da (Camara, 2005).

Abestearen etekina eta azken bolada honetako egoera kontuan izanda, haur eta gaztetxoek musika gustuen inposizio mediatikoa izugarri hazi da, eta zaila da haren aurka egitea. Ez da soilik zer musika mota entzuten edo kontsumitzen duten, baizik eta zer balore eta zer jarrera transmititzen diren horien bidez (Camara, 2003).

Oroimen soziala garatzeko baliabide ezinbestekoa da abestia, eta ondorioz, egunerokotasunean informazioa transmititzeko bide ezin hobe eta ezinbestekotzat hartzen da (Gómez eta Pérez, 2016) baita konpositore, interprete eta entzuleak espazio, denbora eta era ezberdinetan harremantzen dituen fenomeno sozialtzat ere badugu (Green, 2001, Loizaga-k aipatua, 2005); beraz, abestia hezkuntzako eta heziketako funtsezko erreminta da, ondo erabiliz gero, balore sozialak eta iritzien sorkuntza sustatzeko baliogarriak. Izan ere, egungo gizartean abestiak berebiziko espazioa hartzen du gizartearen eraikuntzan, fenomeno sozialak legitimatzeko zein zalantzan jartzeko (Venegas, 2010: 174, Gómez eta Pérez-ek aipatua, 2016)

Ildo beretik jarraituz, lehen aipatu moduan abestia komunikabide bat ere izan badenez, honen bidez askotarikoak dira helarazten diren mezu zein aldarrikapenak. Honen adibide da mungiar Sua Taldearen “Ordu Beltzak” abestia (2019), non taldekideek abestiko letra aldarrikapen baten moduan edota emakumeen egoera azaldu eta gizarteak begiak zabaldu behar dituela esaten duen; hots, aldarrikapen bat egiten dute:

Estereotipo eta edertasun kanonak eragiten duten presio eta sufrimendua islatzen ditu kantu honek, baita haietatik ihes egiteko beharra aldarrikatu ere. Emakume bezala, askotan iluntasunean ikusi dugu gure burua, bizi garen errealitateak ez duelako bat egiten telebista, sare sozial, iragarki edo aldizkarietako gorputzekin. Estereotipoz inguratuta bizi gara eta horrek, eragin zuzena du gure egunerokotasunean. Kanpoko eragileez aparte, lagun, bikote, ezagun edo familiakoek ere epaitzen gaituzte. Horregatik, elkar zapaldu eta konparatu beharrean, eskua eman beharko genioke elkarri, garen moduan onartuz. Izan ere, danok gara presio berdinen esklabu. (Sua Taldea, 2019)

Hala ere, emakumeen aldeko abesti hauen presentzia izateaz gain, estereotipoak oinarri hartzen dituzten eta gizarte honetako ezberdintasuna abiapuntu dituzten abestien kontsumoa ere ematen dela esan beharra dago; hots, emakumea gizonaren menpekora dela adierazten dituztenak ere badaude; beraz, lehen esan bezala, entzuten ditugun abestiek transmititzen dituzten balore eta jarrerak kontuan izan behar ditugu (Camara, 2003).

3.1.1. SEXISMOA ABESTIETAN

Musika munduan parte hartzen duten abestiek jasotzen dituzten eduki sexistak ere baditugu aipatu beharra. Abestiek helarazten dituzten mezuak ezagutza konduktista moduan gure kontzientziaren parte izatera igarotzen dira (Iturbe, 2009). Abestiak kultur erreferentziekin harremana izateko asmoarekin konposatzen direla esan daiteke eta gizartearen parte diren gizabanakoak mugitzeko sortuak dira (Gómez eta Perez, 2016).

Une askotan, abestien erreperitorio tradizionalak emakumearen paperaren eta figuraren inguruko desberdintasuna erakusten du, abestiak adin goiztiarretik bai neskatila bai mutikoak sozializatzeko hezkuntza prozesuan parte hartzen duela jakinda (Camara, 2004, De Alba, Arriaga, Camara-k aipatua, 2019), gure belaunaldiengatik helduta antzinako abestiak abesten ditugu komunitate, haurtzaro edota aurretikoenganako gertutasuna sentitzeko edo jolas modura hartzen ditugulako, edota melodia politak iruditzen zaizkigulako.

Hala ere, aditu batzuen ustetan, gaur egungo musika industria diskografikoek sistema kontrolatzen dute, beraiei komeni zaien musika sustatuz. Musika negozio bilakatu da musikaren berezko hezkuntza gaitasuna baztertuz eta bestelako funtzioak deuseztatuz (De la Ossa, 2011). Honen adibide da 2016an hain famatua egin zen Maluma-ren *Cuatro Babys* abestia estribilloan “estoy enamorado de cuatro babies, siempre me dan lo que quiero, chingan cuando yo les digo. Ninguna me pone pero” dioena, bere bideoklipen gizonak emakumearenganako duen boterea erakutsiz.

Hala ere, *Cuatro Babys* reggatoi estiloko abestia atzean utzirik eta gure kulturaren murgilduak, gure oinarriko curriculumak esaten duen moduan gure ondare kulturala mantentzeak berebiziko garrantzia baitu, abestia gurea dena helarazteko bide egokia dela jakinda, transmititzen dugun horretan kontziente izan behar garela oso presente izan behar dugu, batzuetan kutxu sexista duten abestiak baititugu. Adibide gisa honako hauek ditugu.

Txiki txikitatik soka-saltoan gabiltzala “aita, ama, zenbat urteekin ezkonduko naiz...” abestian maitasun erromantikoa ikusten da; euskal abesti tradizionaletara joz gero, “Maritxu nora zoaz?” edota “Pello Joxepe” abestiek estereotipo sexistan adierazten dituzten abesti entzunak dira (De Alba, Arriaga, Camara, 2019)... Era orokor batean esanda, askotan, abestietan emakumearen papera amatasunarekin, ezkontzarekin eta etxeko gauzeekin erlazionatzen da gizonezkoa aipatu berri izan diren ezaugarrien artean emakumea hautatzera sortua delarik (Fernández, 2013; De Alba, Arriaga, eta Camara, 2019). Baina, norbaitek ba al daki berdintasuna bultzatzen duen abestiren bat? Edo gutxienez, emakumea gutxiesten ez duen baten bat?

2004ean musikak eztanda bat eman zuen, Bebe abeslariaren eskutik, “Malo, malo, malo eres; no se daña a quien se quiere. Tonto, tonto, tonto eres; no te pienses mejor que las mujeres” letra zuen abestiari esker (Iturre, 2009).

Hau guztia kontuan izanda, argi dago gaur egungo gizarteak berdintasunean aurrerapausoak emateko hezkuntzan duela gako, estereotipoekin bukatu eta behin-betiko aldaketa emateko. Aldaketa nahiak, etorkizuneko irakasleen zereginean pentsatzea dakar. Transmisio honi aurre egitekotan, jakinda generoaren desberdinketa hau historian zehar eraikia izan dela, kultura batetik datorrela kontuan izanda eta gizarte baten sorkuntza dela oinarri izanda, irakaslearen formakuntzaren garrantzian hausnartu beharra dugu (Cabedo eta Diaz, 2015), eta hausnarketatik abiatuta proposamenak egiten bultzatu. Ikaskuntza ona dela esaten da ikaskuntza honek mundua ikusteko eraketan parte hartzen duenean (Stenhouse, 1985, Díaz-ek aipatua, 2005).

4. HELBURUA

Gizarte honetako partaide izateaz gain, belaunaldi berrien hezitzailea izango garela kontuan izanda, egungo egoerak arduratzen nau. Bizi dugun gizartearen aurrean, musikak eta batez ere abestiek berebiziko presentzia dute gaztetxoaren artean. Hau kontuan izanda, eta musika komunikabide bat bezala hartzeaz gain, etorkizuneko irakasle izango denaren eskutik sortua den proposamen honek duen helburua hezkidetzaren musikaren bidez lantzea izango da eta abestiek helarazten dituzten mezuen aurrean kritikotasunez jokatzeko, gizarte honetako eskema eta estereotipoen kontra egitera bultzatuz.

5. METODOLOGIA

5.1. OINARRI METODOLOGIKOA

Arestian aipatu bezala, helburua hezkidetzaren musikaren bidez lantzea denez, metodologia guztiz kualitatiboa erabiliko da. Instrumentuei dagokienez, aldeztatik bibliografia aztertu ondoren, behaketa, irakaslearekin elkarrizketak, letren analisisa eta eztabaida taldea erabili dira.

Metodologia kualitatiboa dela esatean, metodologia kualitatiboa gizakiaren jokabidearen eta jokabide horren motibazioa jakitea du helburu, hortaz, kuantitatiboa ez bezala, indibiduoaren sakoneko arrazoiak, motibazioak eta jarrerak ezagutu nahi ditu beste motatako galdera batzuen bidez. Teknika honek zuzenean ikusi ezin diren, ezkutuan dauden eta sakonak diren gertakariak ikertzen ditu (Ramos, 2015). Behaketa eta elkarrizketei dagokienez, hauen helburua, testuinguruaren azterketa sakona egitea izan da topikoak klase dinamikak, eduki eta helburuen lanketa, erabiltzen dituzten baliabideak... izanik. Bukatzeko, eztabaida taldeen bidez, ikasleen iritziak jaso dira. Hau esanda, proposamen bat diseinatu da non ikasleek entzuten dituzten sei abestiren letrak aztertuko diren ondoren parte hartzaileei entzundako edota ikusitakoaren inguruko iritzia eskatuko zaielarik, eztabaidak sortuz, besteak beste.

5.2. PARTAIDEAK

Proposamenari dagokionez, Uribe Butroiko ikastetxe batean eraman izan da esku hartze hau aurrera. Hasiere batean 3.mailako ikasleekin aurrera eramatea pentsatua bazen ere, azkenean 6.mailan jorratua izan da 26 ikasleko talde batean hain zuzen ere, 12 neska eta 14 mutil ez osatua eta ikasleetako bat atzerritarra izanik. Azken aldaketa honen zergatia eduki aldetik kontzeptuen inguruko ezagutza izateaz gain, adimen aldetik kritikoagoak eta parte hartzaileagoak direlako izan da.

5.3. ERABILITAKO INSTRUMENTUAK ETA PROZEDURA

Esan bezala, esku hartze hau aurrera eramateko asmoz, pauso ezberdinez sortua den prozesu bat eraman izan da aurrera; hots, behaketa, elkarrizketak, proposamenaren diseinua eta azkenik eztabaida taldea.

Hasteko, Lehen Hezkuntza osoko musika saioak aztertu dira (12 gela ezberdin) eta bertatik lortutako emaitzak ondorengoak dira. Hezkuntza nahiko tradizionala jasotzen

dute, bakarkako lanak berebiziko presentzia izanik, ikasleen interesak ez dituzte kontuan hartzen eskuliburua eramaten dute aurrera gazte gaztetatik musika lengoia eta kultura musikalaria bakarrik garrantzia emanez, ikasleen eginbehar nagusia unitate bukaerako azterketa gainditzea da, ez dituzte abesti, musika instrumentu edota mugimendua eskatzen dituzten jarduerak burutzen teoriari garrantzia osoa ematen baitzaio... Behatutako kontuan izanda, irakaslearekin izandako elkarrizketen bidez, ikasgelan kantuak duen presentzia, lantzen dituzten eduki eta helburuen nondik norakoak, musika saioetako talde lanaren presentzia eta antzerako topikoen inguruko hartu emanak izan dira. Hauetatik lortutako erantzun harrigarri bat musika lengoia eta kultura musikala landu behar diren garrantzia izan da, kantugintza edota ikasleen interesari baino garrantzia gehiago ematen ziolarik justifikatuz.

Egoeraren aurrean, esku hartzearen nondik norakoak aipatu eta irakasleari bere iritzia eskatu zaio. Helburua eta eginbeharra interesgarria iruditu zaiolarik, plangintzarekin ekin zaio. Proposamenaren nondik norakoak zehaztean, irakasleak bere laguntza eskainiz, eskolak berak planteaturiko Martxoak 8aren plangintzarekin bat egiteko aukera emanda, seigarren mailako ikasleekin *¿Cómo te suena?* bideoaren lanketarekin hasiko da, honek data zehaztea dakarrelarik (martxoko lehen astea). Abiapuntua jarrita, saioen prestaketa zehatza egin da. Otsaileko azken astean, ikasleei orri bat pasatu zitzaizen bertan bakoitzaren abesti gustukoaren izenburua eta abeslari/taldea jartzeko. Behin 20 abesti ezberdinetako zerrenda izanik, etxean banan-banan aztertu izan dira eta letraren arabera hiru abesti sexista eta beste hiru ez sexista aukeratu dira. Hala ere, zailtasunenak izan dira abesti ez sexistak aukeratzekoan baten falta baitzegoen. Egoera honen aurreran, berriro ere irakaslearekin elkartu eta elkarrekin hirugarren abesti ez sexista bat hautatu da, hautaketa egiteko irizpideak talde hasi berri bat eta euskarazko musika izatea izan dira kontuan.

Saio egunak helduak direla, lehenik ikasleei egingo denaren berri emanez eta parte hartzearen garrantzia goraipatuz, esku hartzeari ekin zaio. Jarduera bakoitzaren bukaeran, ikasleen arteko debate bat sortu da, bakoitzak bere iritzia plazaratuz. Behin saioak bukatuta, ikasgelatik at irakaslearekin elkartu eta saioetan ondorioztaturiko komentatu da. Esan behar dago, ikasleen hitzak jasotzeko, eskuz zirriborro bat sortu izan dela. Eztabaidako topikoak eta emaitzak, batez ere sentimenduen adierazpena (lotsa eta haserrea batez ere) eta autokritika izan dira.

6. LANAREN GARAPENA

Hiru saiotako eta lau jarduera ezberdinetako proposamen moduan planteatu izan zen, programazioa ondorengoa izango zelarik:

SAIOAK	JARDUERAK
1. Saioa	<ul style="list-style-type: none"> • Testuinguruan kokatzeko, aurrezagutzak galdetuko zaizkie. Zer dakizue Martxoak 8aren inguruan? Zergatik da ezaguna egun hau? • ¿Cómo te suena? Bideoaren azterketa • Lehen abesti sexistaren azterketa: En el Pais – Bryant Myers
2. Saioa	<ul style="list-style-type: none"> • Beste bi abesti sexisten behaketa: Lollypop – Kidd Keo; Mia – Bad Bunny feat Drake • Hiru abesti ez sexisten behaketa: Celoso – Lele Pons; Zer izan – Huntza, Mafalda eta Tremenda Jauria; Kolpe - Kai Nakai.
3. Saioa	<ul style="list-style-type: none"> • Bakoitzak ikasirikoaren inguruko hausnarketa egin norberak nahi duen baliabidearen bidez. • Mezu positiboz sortua den eta hezkidetza gai nagusi duen bertso sorta bat sortu • Gainerako eskolako partaideentzako erakusketa (nahi izatekotan)

Hala ere, bigarren saioa egin behar genuen egunean bertan jakin genuen Koronabirusa dela eta, klaseak eten egingo zirela. Beraz, azken saioa aurrera eramán ezin zela kontuan izanda, bigarren saioan jarduera bat gehitzea erabaki zen, ikasitako edo ikusitakoa biltzen zuen debate handi bat sortuz.

SAIOAK	JARDUERAK
1. Saioa	<ul style="list-style-type: none"> • Testuinguruan kokatzeko, aurrezagutzak galdetuko zaizkie. Zer dakizue Martxoak 8aren inguruan? Zergatik da ezaguna egun hau? • ¿Cómo te suena? bideoa • Lehen abesti sexistaren azterketa: En el Pais – Bryant Myers
2. Saioa	<ul style="list-style-type: none"> • Beste bi abesti sexisten behaketa: Lollypop – Kidd Keo; Mia – Bad Bunny feat Drake • Hiru abesti ez sexisten behaketa: Celoso – Lele Pons; Zer izan – Huntza, Mafalda eta Tremenda Jauria; Kolpe - Kai Nakai.

• Bi saioetan ikasitakoaren inguruko debatea
--

Hau esanda, zehaztasunera joz gero, otsaileko azken astean ikasleei beraien abesti gogokoenaren zerrenda egitea eskatu zitzaaien azalpen labur bat emanaz eta astea igarota, horrela egin zuten aurrera saioek:

LEHEN SAIOA

Arestian aipatu izan bezala, esku hartzearen gai nagusia hezkidetza izanik eta abiapuntu Martxoak 8 izanda, hezkidetza zer den lantzeko, hasteko, Martxoak 8aren inguruan dituzten ezagutzak galdetu zitzaizkien ikasleei eta hauek beraien usteak edo ezagutzak erakutsiko zituztenean, irakaslearen eskutik azalpen txiki bat jasoz.

Behin gaien kokatuta, musikaren munduan murgiltzen hasteko, hain ezagunak diren



hainbat abesti sexisten bidez osatu den *¿Cómo te suena?* bideoa jarri zitzaien. Bideoa mezu berbera helarazten duen bi zatiz osatua denez jarduerak ere bi zati izan zituen. Hasteko melodiadun zatia jarri eta entzundakoaren inguruko iritzia emateko eskatu zitzaien. Ondoren, melodia gabeko zatia eta berriro ere iritzia eskatu zitzaien. Jarduera honekin lortu nahi zena, ikasleek musika

komunikabide bat bezala ikusteaz gain, gure gizartean dauden hainbat estereotipo edota ezberdintasunak ezagutzen hastea izan zen, hezkidetzan sartuz.

Lehen jarduera eginda, aurreko astean ikasleek aurkezturiko abesti zerrendan aukeratu izan zen lehen abestia aztertzeari ekin zitzaion, Bryant Myers-en *En que Pais* abestia hain zuzen ere. Abestiaren bideoklipa eta letra azertu ziren bai irudien bidez bai letraren bidez emakumea objektu bezala islatzen baita abesti honetan. Biak aztertua eta gero debate txiki bat sortu zen, non boluntarioek entzundakoaren zein ikusitakoaren inguruan komentatu zuten (sentipenak, helarazitako mezua zer iruditu zaien, mezuarekin bat egiten duten ...). Horretarako, nahiz eta normalean inizatiba handiko ikasleak izan, abesti bakoitzaren bukaeran, laguntza gisa horrelako galdera irekiak planteatu zitzaizkien: ados al zaudete mezuarekin edota irudiekin? Zer sentitu duzue hau entzutean? Berdintasunaren alde egiten al du abesti honek? Emakumeen inguruko zein nolako irudia helarazten du abestiak? Eta gizonarekin irudiari dagokionez?... Jarduera honetan, helburua helarazte

diren mezu zein irudiek duten kutxu sexistaz konturatzea eta gure buruan auto-hausnarketa bat bultzatuko zen.

BIGARREN SAIOA

Aurreko saioan utzitako jarduerarekin jarraitu zen. Gaiari kokatzeko aurreko saioko abestiaren inguruan lortutako iritziak gogorarazi ziren era labur batean eta ondoren beste bi abestiak aztertzeari ekin zitzaion hauen inguruko debatea sortuz; hots, Kidd Keo-ren *Lollypo* eta Bad Bunny feat Drake-n *Mia*. Azken honek helarazten duen mezua laburki esanda emakumea gizonaren menpekora dela da. Bi abesti hauek behin aztertuta, ikasgelako kideen artean aurreko saioko antzerako debate bat sortu zen. Helburua, kontsumitzen dugun musikaren inguruan kritikotasunez jokatzeko ikastea zen, hezkidetzako duen garrantzia goraiatuz eta gure egunerokoa izan behar duen presentzia aldarrikatuz.

Abesti sexistekin bukatuta, beste hiru abesti ez sexista aztertu ziren non emakumeen askatasuna eta boterea aldarrikatzen duten eta hauen inguruko debatea sortu zen: *Lele Pons-en Celoso*; *Huntza*, *Mafalda* eta *Tremenda Jauria-ren Zer izan* ; eta *Kai Nakai-en Kolpe*, hain zuzen ere. Helburua, hezkidetzaren garrantzia erakustea da, berdintasunaren garrantzia aldarrikatzea.

HIRUGARREN SAIOA

Azken saioa izan beharko lukeen honen helburua aurreko bi saioetan ikasitakoaz hausnartzeko eta eztabaidatzeko erabiliko litzateke. Hasteko, ikasleetako bakoitzak nahi duen hedabidearen bidez hausnarturikoa idatziko luke eta ondoren, guztiok batera, saioek emandakoa eta ikasitakoa kontuan izanda, mezu positiboak sortuak den eta hezkidetzari gai nagusi duen bertso sorta bat sortzea zegoen antolatuta eskolako bertso saioak erabiliz. Gainera, ikasleek nahi izanez gero, eskolako gainerako partaideei abestea erakutsiko litzaieke, eskola guztiarengana auto-hausnarketa bultzatzeko asmotan.

Hala ere, arestian aipatu bezala, azken saio hau ezin izan zen aurrera eraman eta emaitzak lortzeko asmoz, bigarren saioko azken 10-15 minutuetan ikasitakoaren inguruko debate bat sortu zen ikasitakoaren inguruan hausnartzeko eta bakoitzak bere pentsamendua erakusteko asmoz.

7. ESKU HARTZEAREN EMAITZAK

Proposatutako esku-hartze hau gelan egin denean, helburua ikasleek musika munduan kontsumitzen duten horretan kritikoagoak izatea lortu nahi izan da, hezkidetzaren garrantzia goraipatuz. Hala ere, aniztasunean ikasle bakoitzak bere iritzia duela kontuan izan behar da, honen aldeko egon ala ez. Beraz, helburu nagusia esku hartze honetan saioek aurrera egin ahala kritikotasun gehiagoz jokatzeko duten ikustea izan da, batzuetan abestien bidez transmititu diren mezuak ekidin behar ditugula konturatuz.

Lorturiko emaitzei dagokienez, kontuan izan behar dugu egunerokotasunean jasotzen duten metodologiarekin hautsi egin dela proposamen hau aurrera eramanean. Musikako saioak kultura musikala eta musika lengoia lantzerantz bideratuak izaten dituzte eta oraingoan alde teoriko guztia alde batera utziz, ikasleen jarrera guztiz parte-hartzailea eta motibatua izan da. Beraz, esan beharra dago, hasieran izandako beldurrak ikasleen jarrera pasiboa izatea izan den arren, asko harritu nau jasotako feedback-ak. Guztiak egon dira jarduera guztietan hitz egiteko eta iritzia plazaratzeko gogoz, errespetuz jokatu dute, iritzi guztiak onartu dituzte nahiz eta gero ez partekatu, txandak errespetatu dira, lasaitasunez jokatu dute eta berain arteko hartu-emana etekinduna izan da.

Ildo beretik jarraituz, debateetan emandako argudioei dagokienez, nahiz eta hasiera batean ikasleak lotsatuta sentitu, azkenean beraien sentipenak plazaratzera ausartu dira. Hasieran neskek sentimenduak adierazten hasi diren arren, mutilak ere animatu dira eta neska-mutilek sentitutakoa adieraztean, biek sentimendu berberak sentitzen dituztela konturatu gara (bai irakaslea bai ikasleak bai ni) nahiz eta erabilitako hitzak ezberdinak izan. Hona hemen ikasle batzuek emandako argudioak:

Lotsatuta sentitu dut. Modako abestiak direlako entzuten dut eta melodiak gogora erraza egiten zaizkidalako. Ez dut inoiz abesten ditudan letrak aztertu eta guztiz desadostu nago. Norbera da bere jabe eta ez du inork ezer egitera derrigortu ez kontrolatu behar. Berdintasunaren alde egin behar dugu eta zerbait pentsatu behar dugu estereotipo eta ezberdintasunak ezabatzeke.

Eskolako sei urte hauetan hezkidetzaren hitza askotan entzun da eta berebiziko garrantzia duela esan beharra dut. Alde batetik asko pozten naiz hasieran entzundako abestiak ez nituelako ezagutzen eta ez zaizkidalako gustatzen, baina beste alde batetik flipatzen gelditu naiz. Nola entzuten dituzue horrelako astakeriak? (bere kideei galdeturiko galdera da) Nazka sentitu dut, lotsa.

Hala ere, nahiz eta asko hezkidetzaren beharrianaz konturatu eta musikaren aurrean ere kritikotasunez jokatu behar dela konturatu, bizpahiruk abesti sexisten alde egiten dutela

ere esan beharra dago horietako batek ondorengo argudioa eman duelarik “*mi chica se va a depilar porque lo digo yo, que asco si no. ¡Todo pelo... que feo! ¡Las chicas no deberían de tener pelo!*”.

Bukatzeko, irakaslearekin izandako elkarrizketan oinarrituta, etorkizun gertura begira kantugintzari zuzendua den saioak prestatzearen alde egin behar dela konturatu gara, inork ez baitzuen uste horrelako abestiak hain gaztetatik entzuten dituztenik. Gainera, eskolako oinarrietako bat hezkidetza eta bizikidetza proiektua izanik, musikak gazteengan duen presentziaz konturatuta, honen lanketa ezinbestekoa ikusten dugu.

8. ONDORIOAK

Ondorioei dagokienez, hasteko, LOGSE legetik Heziberri 2020ra arte hezkidetzaren garrantzia azpimarratzen dutela eta musika hezkuntzak eskaintzen duen etekina kontuan izanda, begi bistako da musikari eskaintzen diogun denbora oso txikia dela. Gainera, hezkidetza nahitaez landu beharreko lerroa izanda, eskubide zein hezkuntzaren helburu bat denez (Cabeza, 2010; Reizabal, 2015; Subirats eta Brullet, 1991), eskolan honen lanketari denbora gutxi ematen zaio ikusgai da, normalean beste zenbait edukiren lanketari ematen baitzaio garrantzia.

Hernández eta Maiak (2013) azpimarratzen duten moduan, gaur egungo gizartean, musika gazteen munduan dago eta entzuleengan duen eragina ukazina da. Hainbatetan musika hedapenak estereotipo kontserbadore batzuk baieztatzen ditu genero-atributuekin eta, nolabait, gizarte-testuinguruarekin lotutakoak, hor sortzen baitira. Hau esanda, abesti horietako testuak idazten dituen pertsonaz ere ari gara, horien bidez pentsamendu bat islatzen baitu, gazteentzako erreferente garrantzitsu bihurtuz, eta, azken batean, bere nortasunaren konfiguraziotik abiatuz. Beraz, kantugintza hezkidetza jorrazteko erreminta ezin hobe dela ondorioztatu daiteke lan honetan musika hezkuntzak auto-hausnarketa ahalbidetzen duen ezinbesteko baliabidea baita (García, 2012).

Esandakoa kontuan edukiz, eskolan entzuten den musikaren eta eskolaz kanpo hurrek entzuten duten musikaren artean dagoen dikotomia (Camara, 2005) oinarri izanda, honelako esku hartzean ikasleen egunerokotasunera gerturatzen direla kontuan izanda, gertutasunak etekina handiagotzea ahalbidetzen du eta hezkidetzaren garrantzia aldarrikatuz abestien inguruko kritika eragiten du.

Ildo beretik jarraituz, genero berdintasunak gizarte eraketa askeagoak eta demokratikoagoak eratzea dakar, talentuen eta gaitasunen aurrean aniztasuna eta aberastasuna etekintzat hartuz. Integrazio estrategia ekintza zehatzekin osatu behar da, bereziki hezkuntza eta prestakuntza arloan, horretarako arau, balore, mundua ikusteko ikuspuntua eta gizon eta emakumeen arteko harremanen inguruan rol eta genero estereotipoen transformazioa ekarriz (Colás eta Villaciervo, 2007) kontuan izanda, proposamen honek ikasleak gizartean dauden desorekaz konturatzearekin, hezkidetzaren eta berdintasunaren alde egin beharreko lanaz ere konturatu dira. Gainera, musika hezkuntzari eta kantugintzari garrantzia ematen hasi beharko ginatekeela uste dut, aipatu izan den moduan egun musikak gure egunerokotasunean izugarritzko presentzia baitu eta aldaketa emateko baliabide izan daiteke.

Bukatzeko, proposamenak erantzukizun egokia izan duen arren, honi berebiziko etekina lotzeko, talde txikiagotan aurrera eramatea egokiago litzateke, eztabaida taldea elkarrizketa eskatzen duen arakatze metodoa baita, elkarrekintzan oinarritzen dena (López, 2010) eta talde txikian taldekideen arteko hartu-eman handiagoa izatea eragingo luke.

9. ETIKA PROFESIONALA ETA DATUEN BABESA

GrAL hau egiterakoan etika profesionalak eskatzen dituen prozedurak jarraitu dira une oro, baita datuen babeserako legeak zehazten dituenak ere. Ekintzaren subjektu izandakoen giza eskubideak, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean enuntziatutako eskubideen arabera bermatu dira, hauen interesak lehenetsiz eta haien autonomia eta askatasuna errespetatuz. Proposamenean parte hartu dutenak anonimotasunean mantentzea erabaki izan da, lan honetan nork zer dioen jakiteak ez baitu garrantzirik, ondorioek baizik. Gainera, esan beharra dago eztabaida taldeetan parte hartzea borondatezkoa izan dela, nahi duenak bakarrik eman izan du bere iritzia eta plazaratutako uste edota sentimendu guztiak ere anonimotasunean hartu izan dira. Zentroa jakinaren gainean egonda eta bertako kideekin izandako elkarrizketa eta batzarrak anonimotasun osoz jaso dira. Lortutako datu guztiak, bai partaideen eskutik bai zentroko gainerako kideetatik, lan hau aurrera eramateko baino ez dira erabiliak izango.

Lana osatzerakoan jaso eta erabilitako informazio guztia modu arduratsuan erabili da datuen babeserako legearen oinarriak jarraitu direlarik.

10. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIA

- Álvarez, A. (2010). Formula magikorik ez. *Ikastorratza, e-Revista de didáctica*, (7), 1-11. 2019ko azaroaren 15ean URL honetatik jaso: shorturl.at/cAUW0
- Azpiroz, A. (2005). Hezkidetza: detaile sutilen indarra. *Hik hasi*, (96), 8-17.
- Beauvoir, S. (1977). *El segundo sexo*. Buenos Aires: Siglo Veinte.
- Cabedo, A. eta Díaz, M. (2015). Arte y música en la educación obligatoria, algo más que un detalle curricular de buen tono. *REMIE: Multidisciplinary Journal of Educational Research*, 5(3), 268-295. 2019ko azaroaren 3an URL honetatik jaso: shorturl.at/ouSX5
- Cabeza, A. (2010). Importancia de la coeducación en los centros educativos. *Pedagogía Magna*, 8, 39-45. 2019ko azaroaren 30ean URL honetatik jaso: shorturl.at/puBP6
- Cámara, A. (2005). Actitudes de los niños y las niñas hacia el canto. *Musiker*, (14), 101-119.
- Camara, A. (2003). El canto colectivo en la escuela: una vía para la socialización y el bienestar personal. *Revista de Psicodidáctica*, (15-16), 105-110. 2020ko urtarrilaren 10ean URL honetatik jaso: shorturl.at/BEO79
- De Alba, B., Arriaga, C. eta Camara, A. (2019). Así cantan los chicos. Canciones infantiles en el aula desde una perspectiva de género. *Actas de AIDIPE 2019, XIX Congreso Internacional de Investigación Educativa: Investigación comprometida para la transformación social*. Madrid.
- Díaz, M. T. (2005). La perspectiva de género en la formación del profesorado de música. *REICE. Revista Electrónica Iberoamericana sobre Calidad, Eficacia y Cambio en Educación*. URL honetatik jaso: shorturl.at/dzCRX
- Euskal Herriko Bilgune Feminista (2018). *Hezkidetza gida*. Andoain: Euskal Herriko Bilgune Feminista. 2019ko azaroaren 15ean URL honetatik jaso: shorturl.at/yBKLY
- Eusko Jaurlaritza (2016). *Genero-ikuspegia curriculumean eta araubide bereziko eta lanbide heziketako ikasketetako irakaskuntza-jardueretan txertatzeko*

gidaliburua. Gazteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. 2019ko azaroaren 15ean URL honetatik jaso: shorturl.at/IGK05

Fernández, A., eta Jorquera, M. C. (2017). El sentido de la educación musical en una educación concebida como motor de la economía del conocimiento: una propuesta de marco filosófico. *Revista Electrónica Complutense de Investigación en Educación Musical*, 14, 95-107. 2020ko martxoaren 10ean URL honetatik jaso: shorturl.at/pCN47

Figueras, J. (2015). La música rock y los tres pilares del sexismo. *Pikara online magazin*. 2020ko apirilaren 11an URL honetatik jaso: shorturl.at/dsQS2

García, C. (2012). ¿Qué puede aportar el arte a la educación?: el arte como estrategia para una educación inclusiva. *ASRI: Arte y sociedad. Revista de investigación*, (1), 5-12.

Gómez, M. eta Pérez, J. P. (2016). La violencia contra las mujeres en la música: Una aproximación metodológica. *Methaodos. Revista de ciencias sociales*, 4(1). 2020ko urtarrilaren 12an URL honetatik jaso: shorturl.at/syPST

Gorrotxategi, M. eta Álvarez, A. (2017). Genero desadostasuna Haur Hezkuntzan. irakasleon erroka berria. *Tantak: Euskal Herriko Unibertsitateko hezkuntza aldizkaria*, (1), 95-122.

Guía de Coeducación (2008). Síntesis sobre la Educación para la Igualdad de Oportunidades entre Mujeres y Hombres. *Madrid: Ministerio de Igualdad*. 2019ko azaroaren 30ean URL honetatik jaso: shorturl.at/mzHNV

Hernández, N., eta Maia, A. F. (2013). Músicas populares urbanas, relaciones de género y persistencia. *Musiker*, 20, 207-253. 2020ko apirilaren 3an URL honetatik jaso: shorturl.at/klrLX

Heziberri (2020). Oinarrizko hezkuntza curriculum. Eusko Jaurlaritz. Hezkuntza, politika linguistikoa eta kultura saila. 2019ko urriaren 20an URL honettaik jaso: shorturl.at/kuCMT

Itoiz, U. (2013). Hezkidetzeta eta sexismoa hezkuntzan [GRAL lana]. 2019ko azaroaren 2an URL honetatik jaso: shorturl.at/NPRZ2

- Iturbe, B. (2009). Sexo, sexismo, música y amor. *Padres y Maestros/Journal of Parents and Teachers*, (325), 25-28. 2020ko martxoaren 13an URL honetatik jaso: shorturl.at/atyBQ
- Jorajuria, I. (2016). Hezkuntza hezkidetzaila: kasu baten ikerketa. [GRAL lana]. 2020ko urtarrilaren 7an URL honetatik jaso: shorturl.at/kFRT8
- Loizaga, M. (2005). Los estudios de género en la educación musical. Revisión crítica. *Musiker. Cuadernos de música*, 14, 159-172.
- López, E. (2005). Propuesta para una educación no sexista: Coeducación e igualdad de sexos en el área de Educación Física. *Lecturas: Educación física y deportes*, (81), 6. 2020ko urtarrilaren 15ean URL honetatik jaso: shorturl.at/begNW
- Maluma. (2016). *Cuatro Babys* [Bideoa] 2020ko apirilaren 29an URL honetatik jaso: shorturl.at/emsZ8
- Molines, S. (2015). *La coeducación en un centro educativo: análisis del patio escolar*. (Tesis doktora). Universidad de Valencia, Valencia, España. 2020ko urtarrilaren 14an URL honetatik jaso: shorturl.at/kFH12
- Porter, T. [TED]. (2012). Tony Porter: un llamado a los hombres [Bideoa]. *YouTube*. 2020ko apirilaren 29an URL honetatik jaso: shorturl.at/GKLO7
- Ramos, A. (2015). Metodología kualitatibo eta kuantitaboa. 2020ko apiriilaren 19an URL honetatik jaso: shorturl.at/vwKM1
- Ramos, P. (2010). Luces y sombras en los estudios sobre las mujeres y la música. *Revista musical chilena*, 64(213), 7-25.
- Reizabal, L. (2015). *Genero-berdintasunean hezteko gida. Familia, irakasle eta bestelako hezitzaileentzat*. Bilbo: UEU eta UPV/EHU.
- Torres, J. (1991): *El curriculum oculto*. Madrid: Morata
- Ugarte, Otaduy eta Irigoyen (2012). *Irakurgaia, hezkidetzaren alde busti!: Betaurrekoen garrantzia*. Vitoria-Gasteiz: UPV/EHUko Berrikuntzen, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko Errektoreordetza eta Berdintasunerako Zuzendaritza.

Sua taldea. (2019). *Ordu Beltzak* [Bideoa]. 2020ko apirilaren 29an URL honetatik jaso: shorturl.at/zLW78

Subirats, M. eta Brullet, C. (1991). *La Ceoducción. Plan para la igualdad e oportunidades para las mujeres*. Enciclopedia práctica de la pedagogia, Planeta

Zaitegi, N. eta Zabala, M. J. (1993). Nola landu eta aukeratu hezkidetzako ikasmaterialak. Emakunde / Emakumearen Euskal Erakundea eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. 2020ko urtarrilaren 3an URL honetatik jaso: shorturl.at/sxABV